


Asasinoen sekta

Arabiarrek belarra deitzen diote haxixari eta ezaguna da haxixetik datorrena garai bateko sektarik famatuen eta odoltsuena: hashishinoak. Gaur egun Iran den lurraldean sortu zuen XI. mendean Mendiko Agureak sekta hau: pasta berde bat ematen zien bere kideei eta hauek Mahomaren zerua ikusten zuten. Leiendak zioen sektako gudukariak lorategi paradisiako batean biziko zirela, hamaika iturrik erregadiatutako landare koloretsuen eta lurrin-tsuenen artean, gizonezkoen plazererako zeuden emakume apartez (huri-ez) inguratutik.



Haren-eko neska, Paul-Desiré Trouillebert, 1874.

Kalamua hashish deitzen zuten arabiarrek, zeinek belar esan nahi baitu. Eta hortik hartu zuen hain zuzen bere izena hashishins delakoan sekta ospetsu eta odoltsuleak. Eta hortik dator, aditu batzuen iritziz, asasino hitza. Presondegi batean merkatarari veneziar batek kopiatzaile bati diktatzen zizkion bidai liluragarri baten xehetasunak, beraren izena Marko Polo zen. Bere kontaktetan "haschi-chinos" edo "haschichiens" direlakoak aipatzen ditu.

1297 URTEAN, Venezia eta Genoa gerran zeudenean, Polo preso hartu zuten. Beraren liburua (*Munduko gauza harrigarrien liburua*) historia liluragarri bat zen eta zabaltasunez kopiatua izan zen. Polo hil ondoren zazpi mende geroago, EEBBetako kongresua eta iritzi publikoak Marko Polok idatzia itsumustuan sinesten jarraitzen zuten: haxixa fanatismoa, lizunkeria eta goberna ezin daitekeen indarkeria eragiten dituen droga dela. Honetan xelebreena da Marko Polok ez duela inoiz haxixa aipatzen. Marko Polok Pertsiairen iparraldean gurutzatzen zuenean, bertakoek kontatu zioten Mendiko Zaharra bezala ezaguna zen legendazko gobernari baten (Hassan Ibn Al Sabbah jekearen) eta beraren asasino sektaren historia (Soler Insa, 1981:188).

Sekta honen historia 632 urtera igotzen da, Mahoma hil zenean erlijio ondorengo bat (kalifa) izendatu gabe; Islamak aurrez aurre izan zuen ondorengo bat izendatzeko dilema zaila. 656an Ali Mahomaren lehengusua hautatu zuten, baina bost urte beranduago hil zen. Profetaren bigarren ondorengoa Omar kalifa izan zen, zein xiiek gorrotatzen baitzuten. Kalifa bat edo bestea onartzeko lehia hasi zen. Bagdad Islamaren hiriburua izan zenean, horrek eragin zuen sekta desberdinen sorrera tradizio musulmanean. Islamaren barruan bi joera, jatorri semitikoko sunnitak (Islameko ortodoxoak dira) kalifa hautatu nahi zutenak eta xiitak, zeinentzat kalifa Mahomaren ondorengo legitimoa bakarrik izan baitaiteke (1). Bi taldeen arteko diferentziak arrazazko hondo batean eta antzinako tradizioetan nahasten ziren. Nagusiki xiitak leinu arioko pertsiarrek dira, zeinek nahi zuten gobernari bezala oinordetzako monarkia bat. Islamaren gehiengo ordezkatzen duten sunnitak jatorri semitikokoak dira eta beraien ohitura zen beren liderrak hautatzea pertsona merituaren arabera eta ez odolezko leinuaren arabera. Xiitek ez zituzten onartzen sunnitek hautatutako kalifak, baina profetaren familiaren agindua obeditzen zituzten.

Aliren ondorengoak asko ziren. Xiitak ados zeuden profetaren oinordetzako ondorengotzan, baina diferentziak hasten ziren ados jarri behar zutenean ea nor zen ondorengo legitimoa. Desadostasun honek zisma bat eragin zuen xiiten taldearen barruan, zeinen ondorengoan sekta ismaeldarrena sorrera ekarriko baitzuen, sekta horretako delarik asasinoen sekta.

Jafar-I-Sadiq kalifa xiitaren erregealdian gertatu zen. Ohitura xiitaren arabera seme nagusiak jarraitzen dio aitari kalifa bezala. **Baina, Jafar-I-Sadiq delakoak Ismael bere seme nagusia ardoan edaten harrapatu zuen. Egintza hori Koranak debekatu du; kalifak jakinarazi zuen bere seme nagusia ez zela izango beraren ondorengoa eta desoinordetu zuen Ismael baino gazteagoa zen Musa hautatuz.** Xiitak gehienak fidel mantendu ziren Musa kalifa berriarentzat, Ismaeli fidel jarraitu zuten talde txiki baten salbuespenarekin. Ismaelen aldekoek nabarmendu zuten ondorengoa Ismael zela, zeren bera Jainkoak izendatu baitzuen eta bekaturik gabe baitzegoen. Ismael hil zen ondorengoekin eta ismaeldarrek gorde ziren eta zain geratu ziren lider berri batek Ismaelen dinastia berrezarri zezan arte. Beren pazientzia saritua izan zen, zeren X. Mendean doktrina ismaelzalearekiko fidela zen dinastia batek hartu zuen Egiptoko tronua eta misiolariak bidaltzen hasi ziren mundu arabiarren barrena ortodoxia ismaeldarrena bihurtzeko asmoz; ismaeldar bihurtutako bat Hassan-Ibn-Sabbah gazte persiarra izango da, edo gerotzik ezagunagoa izan zena Mendietako Zaharra bezala.

Hassan trebetasun berezietako eta autodisziplinako gizona zen. Gizon

argia, handinahia, kudel eta oportunista; bere fidelei esanekotasun itsua eskatzen zien, bere etsaiekin akabatzeke arma politikoa bezala asasinatze suizida zerabilen, mundu arabiarrean ezezaguna ez bazen ere doi-doi erabiltzen zen teknika. Quom-en (Pertsian) jaioa, 1050ean (1124an hila), Hassan Ali Sabbah merkatarari xiita baten semea zen, zein gizartetik erretiratu baitzen monasterio baten bizitzeko (horrek markatu zuen Hassan gaztea) eta bere semea eskola musulman ortodoxora bidali zuen gero garrantzia handia lor zezan. Beraren ikaskide onenak izan ziren Nizan-al-Mulk (inperio arabiarreko bi sultanen ministroa) eta Nisapur-eko Omar Khayyam (1048-1131) (astronomo eta poeta); egun batean elkarri elkarrengana laguntza zinuatu zioten (2). Nizanez postu goren bat lortu zuen Malikxah sultanaren gortean. Omarri lagundu zion pentsio batekin poetak bere erri-mak distrakzio txikiak gabe konposa ahal zituzten (*Rubaiyat-eko poemak* edo *Samarkanda-ko eskuizkribua* konposatu zituen). Gortean sartu zen halaber Hassan beraren laguna, sultanaren zerbitzari bezala (3), baina askoz gehiago nahi zuen (eta esker txarrekoa gainera, zeren bere Nizanezik adiskidetasuna hondatu baitzuen eta saiatu zen ura barregarri uzten). Egund batez sultanak Nizani eskatu zion erregistro zehatza prestatu zezan gortearan sarrera eta gastuekin. Galdetu ziotelarik zenbat denbora luzatuko zen lana, Nizanez erantzun zuen urte bete. Hassan Nizan eta sultanaren arteko eztabaidan sartu zen eta erronka egiteko eran berak berrogei egunetan egin zezakeela esan zuen. Sultana oso pozik zegoen eta Hassanen eskuetan utzi zuen Nizani postua kenduaz. Nizanez haserre informearen artxiboak aldatu zituen eta Hassanek bere lana aurkeztu zutenean honek okerrak zituen edo datuak falta ziren, eta horrela ebesteratua izan bere ozarkeriarengatik. Hassanek makurrarazirik Egiptora bidaiatu zuen non harremanetan jarri baitzen fatimitekin eta sekta ismaeldar doktrinatan sartu zen (4). Fatimitek eskola bat fundatu zuten non erreklutak entrenatzen baitzituzten doktrina ismaeldarretan eta asasinatzearen artean (5) Egiptoko gortean onartua izan zen baina berriro Hassan gorteko amarruetan nahastu zen, horrela bada atxilotua eta kartzelaratua izan zen. Kartzelan sartzen ari zen bitartean era misteriotsuan minarete bat lurrera jausi zen. Egintza horren aurrean kalifak seinale bat bezala hartu zuen eta berehala kartzelatik atera zuen eta opariz josita bidali zuen.

Hassanek ontziz Siriara bidaiatu zuen eta han egin zituen bere lehen bi konbertsioak. Ontzia utzi ondoren bere mezuza, "hitz berria", zabaltzen hasi zen. Baiesten zuen ismaeldarrek uko egin behar zirela munduko atseginei. Prediku berriaren apostolu autoaldarrikatu zen eta bai indarraz, bai konbentzitzeaz baliatu zen Pertsian botere turkiarra ezabatzeko (6). Hori sakon sartu zen klase pobreetan, zein saiatzen baitziren beren existentzia zoritxarrekoek esanahiren bat aurkitzen. Hassan ez zen hipokrita bat. Aszeta bat izan zen bere bizimoduaren eta bere semea ere exekutatu zuen (7) adibidetzat jartzeko, horrela itxaroten zuen dizipuluek jarraituko ziotela. **Hassanek azaltzen zuen berak betetzen zituen egitasmo jainkotiarrek ulertezinak zirela giza adimenaren-tzat. Jainkoarentzat bakarrik ziren ulergarriak. Bai Mahoma bai**



Dervitxeak, dantza eta musika ezagumena aldatzeko.



Aubrey Beardsleyren "Morte d'Arthur" liburuko irudia, 1893. Deabusak sorgindurik zabaltzen du intsentsua.

Hassan bitartekari hutsak ziren. Hassanek uste zuen bera Aurrendaria zela, lurra berdintzen duen hura Denboraren imana hartzeko prestatua egon dadin (Maalouf, 2002:127). Egipton ikasi zituen teknikei esker, Hassanek zalantza sortu zuen bere jarraitzaileen buruetan. Zenbat eta nahastuagoak zeuden, orduan eta Hassanen menpekoago ziren, fede eta obediencia itsuaren bidez bakarrik ziurta zezaketen salbamendua. Konbertituek beren familiak uzten zituzten Hassani jarraitzeko. Ulemek madarikazioak eta eskumikuak botatzen zituzten sekta honen aurka. Eta sektaren aurkako asasinatzeak hasi ziren eta horien kontrako errepresaliak. Sektak printze batzuk eta zenbait hiri konbertitzen ditu baina Nizamek egoera kontrolatzen du eta Hassan garaitzen du. Honek irakaspen bikaina ateratzen du guzti honetatik, boterearen aldeko borroka baliabide konbentzionalekin (armadekin) galdua dago. Horrela hasiko da bere gerralanabes berria sortzen, zein Asasinoen ordena izango baita.

Beraren hurrengo urratsa gotorleku menperaezina lortzea izango da, non bilduko baititu beraren fidelak eta eskolatu eta antolatuko baititu, Iran eta Afganistango mendiak menperatzeko. 1090 urtean bere kideak sartu zituen Alamut-eko gotorlekuan (8), zein Qazwin-en ipar-mendebalean (sei mila oinetako altueran), Alburtz katearen zabaleran estrategikoki kokatua baitzegoen (benetako arrano habia bat izanik, armada batek konkistatu nahi balu ezin izango litzateke bertara iritsi bata bestearen atzetik ilaran izan ezik) eta bertan zeuden soldaduak konbertitu zituen. Alamut herri gotortu bat zen non bizi ziren soldadu bakar batzuk beren familiarekin, artisau bakan batzuk, nekazari batzuk eta Nizan el-Molk-ek izendatutako goarnizio-buru bat (zeinen izena Mahdi el Alaui baitzen). Hassan derbitxe sufiz mozorrotuta goarnizio komandantearengana hurbildu zen eta 3.000 urte txanpon eskaini zizkion zezen baten larruak estaliko zituen lurrengatik. Komandanteak pentsatu zuen erotuta zegoela eta pentsatu zuen metro karratu lur bakarrik galduko zituela erronka onartu zuen. Hassanek larrua zerrenda finetan ebaki zuen, gero josi zituenak eta gotorleku guztia inguratu zutenak. Komandanteari ordaindu zion eta joaten utzi zion. Gotorlekuaren jabetza hartu zuen 1090eko irailaren 6an. Orduz gero Alamut beraren gordelekua izango da. Gotorlekua 166 urtetan sektaren egoitza izango da (Maalouf, 2002:139).

1092 urtean sultanaren mandatari batek Alamut gotorlekuaren errendizioa exijitzen du. Hassanek isilik entzuten du eskaera. Gero agintzen dio bere asasinoetako bati amildegira jauzi egin dezala. Honek berehala obeditzen dio eta jauzi egiten du gotorlekuaren goialdetik. Mandataria izutzen da ikusitakoarekin eta sultana aholkatu zuen gotorlekuari eraso ez ziezaiola. Honek ez zuen kontutan hartu bere mandatariaren esana eta bere armadari agindu zion Alamut gotorlekuari erasotzeko. Azkenean saio hori eragotzia izan zen, zeren sultana Hassanen jarraitzaile batek pozoituta hil egin baitzen (9). Urte honetan bertan gertatu zen Saljug-eko sultanerriko Nizam-al-Mulk bisirren asasinatzea, sufi bezala mozorrotutako "fidai" baten eskutik. Asasinatze sail bat izan zen mundu musulmana izu-ikaran murgildu zuena (Abel, 1980) (Andrews eta Vinkenoog, 1967).

Hassan orduan hasi zen bere boterea hedatzen mendietan. Gotorlekua

indartzeko neurri berriak eraiki zituen. Uharka sail bat egin zen euriaren eta desizoztearen ura biltzeko. Erretenak ere zulatu ziren ura gotorlekura iritsi zedin, gotorlekua inguratzen zuten lurra ureztatu ziren, fruta arbolak aldatu ziren eta biltegiak sortu ziren non ugari baitzeuden olioak, ospina, eztiak, garagara, arkume-gurina eta fruitu lehorrak, urtebeteko setioa pairatzeko nahikoa. Paradisu moduko bat eraikitzen ari zen zaletu berriak jarraitzera bultzatzeko. Gero joaldi desberdinak egiten ditu norabide desberdinetan, konkistatuko dituen beste gotorlekuarekin sare bat ehoz, 1124an hil zen arte. 12.000 bat fidel zituen.

Liderrak bere jarraitzaileak fidel mantentzen zituen "garuna garbituz": beraiek kausaren alde hiltzen baziren, ziur egon zitezkeen Paradisuan sartuko zirela (honek gogoratzen du Luis Racioneroren hitzaurrea *Los asesinos* lanean (Burman, 2002) non paralelismo bat egiten duen Hassan eta Bin Ladenen artean. Hassanek kide berriei Almut gotorlekuko barazetatik paseo bat eskaintzen zien; baratzea lore exotikoz bete zegoen eta iturriekin, eta bertatik paseatzen ziren emakume sentsualak paradisuaren itxura eman ez. Buru-jan prozesu baten ondoren, horretarako drogak erabiliz, nola ez, (horien artean kannabisa egon zitekeen), kide berriak edozertarako prest zeuden. Zein substantzia ote ziren?

1º) Marko Polok ez du bere lanean inoiz haxixa aipatzen.

2º) Droga ez zioten misio batera bidaltzen zuten inori ematen. Droga baraztaren sarreran kontsumitzen zen.

3º) Droga lo-eragilea zen, erabiltzaileak lokartzen ziren.

Jarraitzaile onak lortzeko maltzurkerietako bat zen gertueneko fideletako bat hartu eta lurtean indusitako zuloan sartu, lurretik burua bakarrik auztzen zela. Gero burua sartzen zitzaion erretitu zulatuta batetik, zulatik burua ateratzen eta auztzen zela eta ondoren kontuari egitasun itxura emateko aktorearen lepoa odoleztatzen zen. Fidel berriak sartzen ziren eta urrutitik ikusten zituzten aktoreen buruak, zeinek beren arimak, Hassani fidelki zerbitzatu ziotelako zeuden paradisuaz hitz egiten baituzten. Agerraldiak oso zirrara sakona uzten zien fidelei. Fidelak lekutik alde egiten zutenean, eta aktoreak barre egiten zutelarik hain ongi jokatu zutelako, bat-batean lepoa moztzen zieten hauei eta beren buruak berriro erakusten zitzaizkien fidel berriei, ikusi zutena trikimailu bat izan zela agertuko zuen egiaztapenik gera ez zedin.

Asasinoek daga erabiltzen zuten eta asasinatzea arte bilakatzen zuten, agnostizismoa garatu zuten, Hassanek argitu zituen profeten hutsakeriaz eta ezertan ez sinestera animatu zituen eta edozertara ausartzera. Hassanek irakasten zien beraiek ez zirela asasino hutsak, eredu izateko jendaurrean jokatzen zuten betetzaleak baizik. Ez zen nahikoa akabatzen eta izuarazten jakitea, hiltzen ere jakin behar zen (10). Asasinatzeak lehentasunez ostiraletan egiten ziren meskitetan otoiaren orduan (jende gehien zegoenean). Biktimak pertsona aipagarriak ziren (bisirrak, printzeak, erlijio dignitarioak) guardia batek inguratzen zituenak. Fidaiak mozorturirik iristen ziren bertara susmorik ez sortzeko eta unerik ustekabekoenean beren helburuak asasinatzen zituzten. Gero inmolatuak dira baina beraien jokabideak konbertsio berri batzuk eragiten ditu. Hassanek oso ondo ezagutzen zituen landareak eta beraien sendatzeko, lasaitzeko edo bizkortzeko dohainak. "Haschichins" direlakoek haxix hornidura ugaria hartzen zuten (mandragora edo belladonnarekin nahastua) borrokara abiatu aurretik, inoiz ez operazioen garaian eta Gurutzadetan nabarmendu ziren beren zangartasunarengatik eta beren zentsura morala erlaxatzeagatik, horrek bide ematen zielarik aurrean jartzen zitzaibien edozein gauza birrintzeko, gupidagabeko hilketak sortzeko eta axolagabe azaltzeko asasinatze suizidaren aurrean; Frantziako Luis erregea sektako kideen eskutan hiltzeko zorion egon zen (Escocotado, 1999:261). Baina, zalantzarik gabe, beraren droga arrakatsuen fedea aldaezina zen, irakaspen zorrotzek, antolaketa eraginkorrek eta lanen banaketa zorrotzak indartua (Maalouf, 2002:155). Antolaketa piramidala zen, Nagusi Handia, Maisu Handia, Predikari Nagusiaren eta sekretu guztien edukitzailea (zein Hassan baitzen) zenaren azpian priore edo ikuskatzaile handiak zeuden, bakoitza bere barrutian (bat ekialdeko Pertsia, Jorasan, Kuhistan eta Tranaoxianarentzat; beste bat mendebaleko Pertsia eta Irakentzat eta hirugarren bat Siriarentzat) sektaren iharduna zuzentzen zutenak eta Hassan informatzen zutenak kontu nagusiez. Bazituzten halaber misiolariak, sektaren irakaspenak hedatzen zituztenak (day delakoak). Azpian hain zuzen ragik-ak zeuden, mugimenduko buruak.

Hierarkian beherago lasek-ak zeuden, antolaketari lotuak. Oinarrizko sinestunak dira, aurretiko jarrerarik gabekoak ez ikasketarako ez asasinatzerako. Horien artean aurkitzen dira artzainak, nekazariak, emakumeak eta zaharrak (Maalouf, 2002:155).

Azpitik aurkitzen dira muyib-ak. "erantzuten dutenak" zein nobizioak baitira. Lehen irakaspenak hartzen dituzte eta beren gaitasunen arabera zuzentzen dituzte ikasketa aurreratuetara edo fiday, "safirikatzen direnak" izateko (Maalouf, 2002:155),

Nagusiak eskatuko zukeen edozer, aginduak zorrozki beteaz eta galderarik egin gabe, egiteko prest zeuden haiek ("fidaiak" edo "fedawis"ak, esan nahi baitu "sagaratuak") ez zuten egokimenik ikasketarako zeren ikasiek beste eginkizun batzuetarako erabiltzen baitzituzten. Fidayen entrenamendua eginkizun delikatua zen (daga ezkutetzen ikasi, nola akabatu



Castellana" delakoan dago. Azkenik XVIII. mendean 1726ko *Autoritateen Hiztegia* "assasino" eta "assesino" ageri dira bereizi gabe. Behin-betiko forma ez zen finkatu mende honen amaieraraino (*Historia y Vida*, 201 zenb.: 63).

Erreferentziak

(1) Xiitentzat Jainkoaren Mezularia da (Mahoma), zeinek ondorengo bat utzi zuen, beraren sekretuen gordetzailer bat, Ali imana (Maalouf, 2002:126). Horrela irau du iman legitimoen leinuak eta beraien bidez transmititu da Mahomaren mezuaren eta Jainko bakarraren existentziaren frogak
(2) Amin Maaloufen arabera hau milurteko berriaren hasierak markatzen zituzten hiru lagun legendaren atal bat da: Omar Jayyam mundua behatu zuena, Nizam el-Molk gobernatu zuena eta Hassan Sabbah mundua izutu zuena. Kontatzen da hiruek elkarrekin ikasi zutela Nisapurren; hau ezin da egia izan zeren Nizamek hogeita hamar urte gehiago zeuzkan Omar baino eta Hassanek bere ikasketak Rayy-en egin baitzituen, baita zertxobait Quom bere jaiotirian, baina ez Nisapurren (Maalouf, 2002: 100). Pertsonaia oso desberdinak dira "baina bakoitzak arima pertsiarren betiko ikuspedia ordezkatzen du" (Maalouf, 2002:229).

(3) Zehazki zeukan funtzioa Daabih-jabarrena izan zen (Inperioko informazio burua: garaiko polizia sekretuaren molde bat). Kargu hau lehenik Omarri eskaini zitzaion Nizamen aldetik baina Omarrek eskaintza arbuiautu zuen eta Hassan aurkeztu zuen kargua lor zezan (Maasouf, 2002:102).

(4) Amin Maaloufen arabera Hassanen konbertsioa bere nerabezaroan gertatu zen misiolari ismaeldar bat ezagutu zuenean. Gaixo jarri zen eta fede ismaeldarrera konbertitzeko promesa egin zuen bizirauten bazuen (Maalouf, 2002:124).

(5) Hassanek bi urte pasatzen ditu Kairon, non irakaskuntza jaso baitzuen bi leku desberdinetan: ulemek fedearen hasimasiak agertzen zituzten Al-Azhar-eko medersan eta zabaltzeko bideak kalifa jauregian irakasten ziren. Eskola hauetako buruak (zein pertsonaia garrantzitsuak baitziren gorte fatimian) ziren ikasleei agertzen zietenak pertsuasio metodoak, argumentu bat garatzeko artea, "bihotzari adina arrazoiari hitz egiteko" artea, kode sekretu bat buruz ikasgaratzen zieten halaber, zein beren komunikaziotan erabili behar baitzuten (Maalouf, 2002:125).

(6) Hassan hiri bakoitzean ordezkariak sortzen dau jarraitzaile talde batekin, itxaroten eta jasaten nekaturtako xiak, sunni pertsiarrek, turkiarren menperatzeaz aspertutako arabiarrak, matxinadarako gogoia zuten gazteak eta zorroztasuna bilatzen zuten sinestunak. "batiniak" deitzen ziren eta sekretuki antolatutako zeuden (Maalouf, 2002:177).

(7) Hau mozkor egoeran harrapatua izan zen, hurrengo egunean lepoa moztu zitzaion (Maalouf, 2002:176). Beraren azken semea ere hil zen, egin ez zuen delitu baten biktima, baina bidegabeki salatua izan zen eta lepoa moztu zuten; bere semen hilketari esker Alamut bertutea eta moralitasunezko gune baketsua bilakatu zen. Hassanen emaztea eta alabak matxinatu egin ziren eta gotorlekutik kanporatuak izan ziren (Maalouf, 2002:177).

(8) Bertako dialektoan Alamutek adierazten du "arranoaren irakaspena". Legendak kontatzen du printze batek gotorleku bat eraiki nahi zuela aipatu mendiak kontrolatzeko eta bezatutako arrano bat askatu zuela. Hau zeruan bira sail bat egin ondoren harkaitz batean pausatuta zen. Printzeak pentsatu zuen hura zela gotorlekuaren kokaleku onena.

(9) Lehen asasinatzea, Amin Maalouf kontatzen duenez, Nizamengana zuzendu zen (Hassanen adiskide ohia). Sultanaren fidel batek agintzen zuen arradak negoziatu zuen Nizamen heriotza (zein dohakabatasunean jausia baitzen ziurtatu zuelarik sultan turkoaren beraren parekoa zela eta bera ez zela haren zerbitzaria) (Maalouf, 2002:144-145).

(10) Erarik adoretuenean hilez jendetzaren miresmena sortzen zuten, zein gero kausara batuko baitziren. Beraien defentsa zen asasinatzea baino garrantzitsuagoa zen heriotza, zeren honen bidez besteak konbertitzen baitzituzten eta horrela irabazten baitzuten. "Konkistatzea helburu bat da, eta defendatzea baliabide bat besterik ez" (Maalouf, 2002:153).

Bibliografia

- Abel, E.L. Marihuana: The first 12.000 years. Plenum Press, New York (1980)
 Andrews, G. Eta Vinkenoog, S. The Book of Grass. An Anthology on Indian Hemp; Chandler and Sharp Series in Cross Cultural Themes, Grove Press, N.Y. (1967)
 Bartol V. Alamut. Editorial Planeta DeAgostini. Bartzelona (2000)
 Burman, E. "Los asesinos" La secta de los guerreros santos del Islam. Martinez Roca, Bartzelona (2002)
 Escototado, A. Historia general de las drogas, Espasa Forum, Madril (1999)
 Lewin, L. Phantastica. E.P. Sutton, New York (1964)
 Maalouf, A. Samarcanda. Alianza Editorial (2002)
 Sahebjam, F. Hassan Sabbah y la secta de los asesinos. Editorial Eldhasa, Bartzelona (12996)
 Soler Insa, P.A., Sole Puig, J.R. San Molina, L.L., Bernardo, M. Toxicomanias, un enfoque multidisciplinario. Ed. Fontanella S.A., Bartzelona (1981)

("Kalamua" eta "Belarra"-tik ebatsi, moldatu eta distira emana. Egile nagusia: Isidro Marin. Andoni Eskisabel itzultzaile)

helburua, hitz mezulariak ezagutu, alfabeto kodifikatuak memorian jaso, dialektoren bat ikasi, inguru etsai batean infiltratu susmorik sortu gabe, e.a.). Fidai batek agindu bat jasotzen duenean bere helburuak bete behar ditu (ez dio axola trabak edo bere bizitzarako izango lituzkeen ondorioak), axola dion bakarra misioa da, bertan hiltzea pribilegio bat zen eta paradisu-rako sarrera bat.

Monferrantiko Konradoren heriotzarekin asasinoen ospea Mendebaleko Europaraino iritsi zen. Asasinatzeaz arduratu zen fidaia sei hilabete egon zen une egokiaren zain monje bezala mozorrotua gurutzatuen kanpamenduan. Nahitaezko betekizuna zen etsaiaren heriotza, batzuetan nahikoa zen mehatxua. Saladinok jeneral bat bidali zuen Alamuteko gotorlekua hartzera. Jeneralak, eraso aurreko gauean, daga bat aurkitu zuen lurtean sartua beraren ondoan hain zuzen. Labanari loturik mezu batek aholkatzen zion alde egin zezan. Saladinok lurralde hura uztea erabaki zuen.

Monarkia handi bakoitzak asasino batzuk zeuzkan infiltratuak gortean. Gobernariak ismaeldarren gustukoak ez baziren, hauek asasinatuak ziren aurrez pentsatutako sagada batean. 1150. urtean asasinoak sendoki kokatuak daude Sirian Rashid al-Din al-Sinan maisuaren zuzendaritzapean (zein 1192an hilko baita); eta asasinoek bizirik iraungo baitute mongoliarrek sakailatu zituzten arte, hain zuzen Hulagu Kan, Ghegis Kanen birbilobaren eskutik, zeinek bilatu eta suntsitu baitzuen gotorlekuen kalifata banan-banan, 1255. urtean, Pertiako gazteluekin batera, beraren patua bere asasinoetaren baten labanarekin zigitatu ez zedin. Alamuteko gotorlekua, lurreko paradisu bat, suntsitua izan zen Hassanek eraiki arazia zuten bibliotekarekin batera. 1260an Masyad-en harrapaketa ondoen mongolen eskutik, Mamluk Baybars sultanak 1272an eman zien azken kolpea asasino siriarrei.

Asasino deituak izan ziren beren etsaien ahotik. Federiko Bizargorri Inperio Erromatar Sainguko gobernariak haeyssessini deitu zituen eta Tiroko artzapezpiku Williamek, berriz, assisini (Novell, 1947). **XIII. mendean erabiltzen zen aipatu hitz hori asasino profesional ordainduentzat. XII. mendeko fraide batek, Lübeck-eko Arnaldo abateak bere *Chronica Slavorum* (III, 17; 10) lanean kalamuak turkoen artean zituen ondorioak kontatzen ditu eta deklaratu zuen asasinoek haxixa erabiltzen zutela asasinatzeak egiteko** (Lewin, 1964:110): "Kalamuak garraiatzen ditu estasi, erotasun edo mozkereria egoera batera: Orduan inguratzen zaizkie sorginak eta erakusten dizkiete irudi atsegingarriak, plazer eta dibertimenduak, agintzen dietelarik gozamen horiek betirako izango direla proposatzen dizkieten aginduak dagekin betetzuten badituzte". Sektaren izenaren jatorria arabieraz hil, akabatu esan nahi duen "hassas" hitzetik edo islameko erlijio buruei jartzen zaien "asas" hitzetik dator. Maalouf historialariarentzat Hassanek Asasiyum deitzen zien bere jarraitzaileei, hau da fedearen "Oinarria" adierazten duen Asas-arekiko fidelak zirenak (Maalouf, 2002:154). Frantzian jada XII. mendean ezagutzen zuten "assassin" hitza eta segur aski gurutzatu frantziarrek (beren artean tenplarioak) eraman zuten etxera itzuli zirenean. Gaztelaniazko asasino hitza assisini hitzetik dator. Hitz horri dagokionez lehen dokumentazioa Alfonso X. Jakintsuaren *Partidas* delakoetatik jasotzen da. Beste ortografia forma batekin "anxinin" agertzen da Itsasoz haraindikoaren Konkista Handian XIV. mendearen hasieran. Juan Manuel infanteak 1330ean idazten du "assesino". 1535ean Valdeseko Juanek baiesten du "assasinare" hitz italiarra dela. Jada XVII. mendean Covarrubiasen "Tesoro de la Lengua